

**A maila. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleak.**

<b>Parte-hartzailea</b>	<b>Ikastetxea</b>	<b>Izenburua</b>
<a href="#">Nerea Lapuente Lopez</a>	Zelandi I.P.	<i>Gorrotatzen dudan bazkaria</i>
<a href="#">Irati Altzelai Karasatorre</a>	Andra Mari	<i>Eguerdi txarrena</i>
<a href="#">Maialen Unanua</a>	Urdiaingo HE	<i>Gustuko bazkaririk ez</i>
<a href="#">Ane Razkin</a>	Urdiaingo HE	<i>Baserrian bisitan</i>
<a href="#">Janire</a>	Luis Fuentes	<i>Suerte txarrekoa zara. Gaur ere</i>
<a href="#">Geaxi Ezagirre</a>	Atakondoa	<i>Suerte txarrekoa zara. Gaur ere</i>
<a href="#">Nerea Igoa Ulaia</a>	Andra Mari	<i>Bazkari txarra</i>
<a href="#">Oihan Soto Satrustegi Haritz Nazabal Goñi</a>	Andra Mari	<i>Asteburua iristeko irrikaz zaude</i>
<a href="#">Asier Estarriaga Navarro</a>	Andra Mari	<i>Suerte txarrekoa naiz gaur ere</i>
<a href="#">Beñat Araña Soraluze</a>	Andra Mari	<i>Eguna baserrian</i>
<a href="#">Saioa Araña Martxueta</a>	Andra Mari	<i>A ze zorte txarra...</i>
<a href="#">Jurgi Kintana Igoa</a>	Andra Mari	<i>Mateko azterketa</i>
<a href="#">Intza Insausti Olasagarre</a>	Andra Mari	<i>Larri nabil</i>
<a href="#">Odei Huarte Arano Gari Satrustegi</a>	Andra Mari	<i>A ze larrialdia!</i>
<a href="#">Iosu Mendiola</a>	Andra Mari	<i>Baserri bateko bizimodua ikustera joan gara</i>
<a href="#">Marina Zabala</a>	Andra Mari	<i>Froga egiten hasi naiz</i>
<a href="#">Nahia Larraza Razkin</a>	Andra Mari	<i>A ze eguna</i>
<a href="#">Barbara Poglla</a>	Andra Mari	<i>Azterketa eguna</i>
<a href="#">Mikel Manero Arguelles</a>	Zelandi	<i>Zezena</i>
<a href="#">Olatz Ruiz Urdaniz</a>	Zelandi	<i>Baserria</i>
<a href="#">Gorka Alonso Dominguez</a>	Zelandi	<i>Baserria</i>
<a href="#">Itxaso Letona Marquinez</a>	Zelandi	<i>Super kuki taldea</i>

<a href="#">Mairu Guinea Gasco</a>	Zelandi	<i>A ze suerte txarra</i>
<a href="#">Nerea Navarro Rodriguez</a>	Zelandi	<i>Eder eta ni</i>
<a href="#">Iosu Apestegia Diego</a>	Zelandi	<i>Suerte txarra azterketan</i>
<a href="#">Aintzane Diaz Mazkieran</a>	Zelandi	<i>Amonaren katua</i>
<a href="#">Esteban Letona Markinez</a>	Zelandi	<i>Suerte txarra</i>
<a href="#">Jorge Rivero Urteaga</a>	Zelandi	<i>Larunbatean sorpresa</i>
<a href="#">Inixio Amillano Casteig</a>	Zelandi	<i>Jainkoa eta hilketa</i>
<a href="#">Marina Herrero Diaz</a>	Zelandi	<i>Nire egun txarra</i>
<a href="#">Patxi Letona Markinez</a>	Zelandi	<i>Zorte txarra</i>
<a href="#">Zaira Salazar Vinagre</a>	Zelandi	<i>Suerte txarra eta hippy</i>
<a href="#">Idoia Jimenez Luceño</a>	Zelandi	<i>Suerte txarra</i>
<a href="#">Iker Marcos Betelu</a>	Zelandi	<i>Egun txarra</i>
<a href="#">Marta Borrega Gonzalo</a>	Zelandi	<i>Nire animaliak</i>
<a href="#">Mirari Marcos Mugarza</a>	Zelandi	<i>Nire herria</i>
<a href="#">Raul Claver Moreno</a>	Zelandi	<i>Ni, nire familia eta gustuak</i>
<a href="#">Irati Anton</a>	Zelandi	<i>Nire familia eta ni</i>
<a href="#">Peio Zabalza Lopez</a>	Zelandi	<i>Oporrak heldu dira!</i>
<a href="#">Ane Cantero Crespo</a>	Zelandi	<i>Kirola</i>
<a href="#">Irati Bergara Campo</a>	Zelandi	<i>Natura</i>
<a href="#">Nerea Llamas Fernandez</a>	Zelandi	<i>Nire familia</i>
<a href="#">Yuri Pablo Martinov</a>	Zelandi	<i>Ikasi ez nuen kontrola</i>
<a href="#">Iker Gomez Bengoetxea</a>	Zelandi	<i>Mendia</i>
<a href="#">Henar Cid</a>	Zelandi	<i>Kontrola</i>
<a href="#">Iasone Insasuti Gomez</a>	Zelandi	<i>Nire familia</i>
<a href="#">Amaia Zubikoa</a>	Zelandi	<i>Nire familia</i>

<a href="#">Ainhoa Palomino Cid</a>	Zelandi	<i>Loreak</i>
<a href="#">Xabier Ormazabal Anguiano</a>	Zelandi	<i>Altsasu eta Zelandi</i>
<a href="#">Olaia Gramizo Candelas</a>	Zelandi	<i>Nire familia eta ni</i>
<a href="#">Axel Gonzalez Nogueira</a>	Zelandi	<i>Nire laguna</i>
<a href="#">Oihane Armendariz Soriano</a>	Zelandi	<i>Suerte txarra</i>
<a href="#">Ane Martinez Mazkiaran</a>	Zelandi	<i>Bazkaria gogoko, ez</i>
<a href="#">Iñigo Tobar Beperet</a>	Zelandi	<i>Harrapatu naute</i>
<a href="#">Asier Palacios Maiza</a>	Zelandi	<i>Asteburua iristeko irrikaz</i>
<a href="#">Eneko Casteig Agirre</a>	Zelandi	<i>Harrapatu naute</i>
<a href="#">Jon Otermin</a>	Zelandi	<i>Bazkaria gogoko, ez</i>
<a href="#">Javier Guisado Rodriguez</a>	Zelandi	<i>Harrapatu naute</i>
<a href="#">Julen Mendia Diez</a>	Zelandi	<i>Bazkaria</i>
<a href="#">Amaia Abucide Aylagas</a>	Zelandi	<i>Harrapatu naute</i>
<a href="#">Jorge Misiego Torralba</a>	Zelandi	<i>Suerte txarra</i>
<a href="#">Gaizka Lopez Berasategi</a>	Zelandi	<i>Harrapatu naute</i>
<a href="#">Maitane Calleiras</a>	Zelandi	<i>Asteburuko plana</i>
<a href="#">Garcia Letona</a>	Zelandi	<i>Suerte txarra</i>
<a href="#">Julen Grado Muñoa</a>	Zelandi	<i>Harrapatu naute</i>
<a href="#">Ander Vinagre Diego</a>	Zelandi	<i>Bazkaria</i>
<a href="#">Hasier Aldatz Goikoetxea</a>	Zelandi	<i>Asteburuaren zain</i>
<a href="#">Iker Guzman Tiscar</a>	Zelandi	<i>Harrapatu nau</i>
<a href="#">Noelia Reudo Gallego</a>	Zelandi	<i>Harrapatu nau</i>
<a href="#">Alex Costa Valencia</a>	Zelandi	<i>Bazkaria</i>
<a href="#">Cristina Aldeano Gomez</a>	Zelandi	<i>Asteburuaren zain</i>
<a href="#">Ainara Montoya</a>	Zelandi	<i>Asteburuaren zain</i>

<a href="#">Izaskun</a>	Zelandi	<i>Asteburua</i>
<a href="#">Ainhoa Santano</a>	Zelandi	<i>Zorte txarra</i>
<a href="#">Maialen Misiego Diaz</a>	Zelandi	<i>Bazkaria</i>
<a href="#">Anne Claver Zabala</a>	Zelandi	<i>Harrapatu naute</i>
<a href="#">Lucia Berretaga Berrio</a>	Zelandi	<i>2. zorte txarra</i>
<a href="#">Francisco</a>	Atakondoa	<i>Bazkaria</i>
<a href="#">Pablo</a>	Atakondoa	<i>Hau bai suerte txarra</i>
<a href="#">Adur Aldaregia</a>	Atakondoa	<i>Bazkaria</i>
<a href="#">Peio Zabaltza Lopez</a>	Zelandi I.P.	<i>Gorrotatzen dudan bazkaria</i>
<a href="#">Ametz Lertxundi</a>	Luis Fuentes	<i>Suerte txarrekoa zara. Gaur ere</i>
<a href="#">Iker Meaza</a>	Luis Fuentes	<i>Klaseko mutilekin baserrira</i>
<a href="#">Iñaki Mendieta</a>	Luis Fuentes	<i>Gorrotatzen dudan bazkaria</i>
<a href="#">Josu</a>	Luis Fuentes	<i>Kopiatzen harrapatuta</i>
<a href="#">Mikel Flores</a>	Luis Fuentes	<i>Suerte txarrekoa zara. Gaur ere</i>
<a href="#">Jon Goikoetxea</a>	Luis Fuentes	<i>Klasekoekin baserria</i>
<a href="#">Estefania Malara</a>	Luis Fuentes	<i>Erlijioko azterketa</i>
<a href="#">Iker Arregi</a>	Luis Fuentes	<i>Bazkaria</i>
<a href="#">Maialen Ciria</a>	Luis Fuentes	<i>Suerte txarrekoa zara. Gaur ere</i>
<a href="#">Ane Bañasco</a>	Luis Fuentes	<i>Suerte txarrekoa zara. Gaur ere</i>
<a href="#">Aitor Berastegi</a>	Atakondoa	<i>Bazkari txarra</i>
<a href="#">Mikel Olló Etxarren</a>	Atakondoa	<i>Janari txarra</i>
<a href="#">Miren Beloki Arrasate</a>	Atakondoa	<i>Baserria</i>
<a href="#">Javier Mariezkurrena</a>	Atakondoa	<i>Bazkaria</i>
<a href="#">Lorea</a>	Atakondoa	<i>Bazkaria</i>
<a href="#">Andrea</a>	Atakondoa	<i>Asteburua</i>

<a href="#">Julen Martija</a>	Atakondoa	<i>Bazkaria</i>
<a href="#">Xabier Ustarroz</a>	Atakondoa	<i>Suerte txarra</i>
<a href="#">Maidier Eizagirre</a>	Atakondoa	<i>Azterketa</i>
<a href="#">Alberto Maestre</a>	Atakondoa	<i>Suerte txarra</i>
<a href="#">Jon Irañeta</a>	Atakondoa	<i>Suerte txarra</i>
<a href="#">Uxue Etxeberria</a>	Atakondoa	<i>Bazkaria</i>
<a href="#">Julen Iriarte</a>	Atakondoa	<i>Suerte txarra</i>
<a href="#">Iosu Erbiti</a>	Atakondoa	<i>Suerte txarra</i>
<a href="#">Ines Huarte</a>	Atakondoa	<i>Suerte txarrekoa zara. Gaur ere</i>
<a href="#">Eneko</a>	Atakondoa	<i>Suerte txarra</i>
<a href="#">Josu Z.</a>	Atakondoa	<i>Suerte txarra</i>
<a href="#">Marta Fernandez Beraza</a>	Atakondoa	<i>Zorte txarra</i>
<a href="#">Alain Urrutia</a>	Urdiaingo HE	<i>Suerte txarrekoa zara. Gaur ere</i>
<a href="#">Maialen Galartza</a>	Urdiaingo HE	<i>Kopiatzen harrapatuta</i>
<a href="#">Xabier Larunbe Galartza</a>	Urdiaingo HE	<i>Kopiatzen harrapatuta.</i>
<a href="#">Nerea Berastegi</a>	Urdiaingo HE	<i>Suerte txarrekoa zara. Gaur ere</i>
<a href="#">Gaizka Ocaña</a>	Urdiaingo HE	<i>Gustuko bazkaririk ez</i>



[www.altsasukokima.com](http://www.altsasukokima.com)

### ***Bazkari txarra***

Doinua: *Maritxu nora zoaz*

Nire lagunarekin  
joan naiz bazkaltzera  
eta bere etxean  
porruak jatera.

Bere amak esan dit  
dena jan beharko da  
bestela ez zara joango  
denekin parranda.

Bazkaldu nuen dena  
haiekin joateko  
diskoteka hortara  
dantzan egiteko

Etxera lagunekin  
banoa ohera  
aldez aurretik noa  
hortzak garbitzera

Nerea Igoa Ulaiar

[Aurkibidea](#)

### ***Asteburua iristeko irrikaz zaude***

Oso urduri nago  
larunbataren zain  
klasean aspertuta  
ni pentsatzen Txinan.

Larunbata gainean  
zer egingo orain  
nire lagun minekin  
nago kale erdian

Mutiko bat pasa da  
patinetearekin  
esan digu agur  
esku handi hoiekin

Denak agurtu diogu  
irrifar batekin  
eta farrez hasi naiz  
tontakeriekin.

Oihan Soto Satrustegi Soto  
Haritz Nazabal Goñi

[Aurkibidea](#)

***Suerte txarrekoa naiz gaur ere***

Doinua: *Maritxu nora zoaz*

Eskaileretan behera  
bota baiz goizean  
hanka puskatu eta  
berriro ohean

Ezin nuen zutitu  
lau aste burutan  
berriro igotzeko  
larrialdietan

Ondo sendatu eta  
kirola egitean  
partidoari itxoitzen  
urduri jartzean

Ez dut ezertxo egin  
gaurko egunean  
buruko mina jarri  
belarri atzean

Asier Estarriaga Navarro

[Aurkibidea](#)

***Eguna baserrian***

Doinua: *Triste bizi naiz eta*

Bihar eskursiora  
baserri batera  
motxilak hartu eta  
ongi pasatzera

Ikusiko ditugu  
ardi eta behiak  
gehien gustatu zaizkit  
betiko zaldiak

Ondoren bazkaltzera  
jateko purea  
a ze nolako nazka  
gero filetea

Tripa bete ondoren  
txerri baten bila  
bertako baserrian  
a ze iskanbila

Beñat Araña Soraluze

[Aurkibidea](#)

***A ze zorte txarra...***

Doinua: *Triste bizi naiz eta*

Zorte txarra izaten dut  
kalean ta etxean  
kaka zapatu eta  
ibaira erortzean

Gaur goizean esnea  
lurrera jaustean  
ta irakasle Jesusek  
berriz zigortzean

Ikastolan zigortu  
jipoitu parkean  
beti bezala nabil  
ni noraezean

Amak horrela esan dit  
etxera iristean:  
-oso zikina zatoz,  
ze in duzu kalean?

Saioa Araña Martxueta

[Aurkibidea](#)

***Mateko azterketa***

Doinua: *Triste bizi naiz eta*

Mateko azterketa  
egiten ari naiz  
ondokoari begira  
egoten zara maiz

Ezazu hori egin  
nik esango dizut  
andereinoak esan dit  
zigortuko zaitut

Amari esan eta  
berriz zigortuta  
oso haserre dago  
fi ta fu jarri da

Aitarekin ere bai  
horrelaxe nabil  
baina beste horrekin  
berdin berdin ibili

Jurgi Kintana Igoa

[Aurkibidea](#)

### ***Larri Nabil***

Doinua: *Maritxu nora zoaz*

Ikastolara joan naiz  
estudiatu gabe  
azterketa bi dauzkat  
a ze lotsagabe

Gizartekoa daukat  
lehendabizikoa  
ta bigarren orduan  
ingelerakoa

Bikain bat nahi atera  
hamar biribila  
ta orduan hasi naiz  
irtenbide bila

Ondokoari begira  
ikusi egin nau  
harrapatu ondoren  
honekin akabau

Intza Insasuti Olasagarre

[Aurkibidea](#)

### ***A zer larrialdia!***

Doinua: *triste bizi naiz eta*

Azterketa daukagu  
bihar arratsean  
gutxi estudiatu dut  
atzoko saioan

Oso urduri nago  
lehenengo orduetan  
pixa dariola jua zait  
iztepe ondoan

Eguna etorri zaigu  
azterketa aurrean  
galdera bat ez dakit  
dena izerditan

Txuleta atera eta  
kopiatzerakoan  
andereñoak zazta  
aurpegi guztian

Gari Satrustegi eta Odei Huarte Arano

[Aurkibidea](#)

***Baserri bateko bizimodua ikustera joan gara***

Doinua: *Triste bizi naiz eta*

Behiak eta katuak  
zeuden baserrian  
kaka usaiarekin  
geuden aterpean

Haurrak txoratuta  
baserri zahar hartan  
bitartean txerriak  
beren lokatzetan

Behi haiek berriz  
ondoko larretan  
belar berdea jaten  
lasai soroetan

Baserritarra orain  
jo ta ke lanean  
ta gu autobusean  
etxeko bidean

Iosu Mendiola

[Aurkibidea](#)

***Eguerdi txarrena***

Doinua: *Ama begira ezazu*

Lagunaren etxera  
joan naiz bazkaltzera  
janari txarra dute  
mahaira atera.

Borraja bazkaltzeko  
jarri dit plateran  
usain nazkagarria  
sentitu dut gelan.

Neure buruarekin  
egon naiz hizketan  
ez naiz hemen sartuko  
ezta ametsetan.

Jateko komeriak  
hau arazo itzela  
joan nahi nuke  
etxera orain berehala.

Irati Altzelai Karasatorre

[Aurkibidea](#)

### ***Froga egiten hasi naiz***

Froga garrantzitsuak  
dauzkagu goizean  
musika ta gizarte  
bigarren Orduan

Oso urduri nago  
ez bait dut ikasi  
txuleta egin dut ta  
ezin dut ikusi.

Ondora begiratu  
ta hasi kopiatzen  
irakaslea erne  
niri kontrolatzen.

Azterketa kendu dit  
zero bat jarrita  
gurasoei deituta  
beldurrez josita.

Marina Zabala

[Aurkibidea](#)

### ***A ze eguna***

Doinua: *Maritxu nora zoaz*

Patinoan nengoen  
harrapaketara  
platanoa zapalduz  
zerraldo lurrera.

Iritsi da ordua  
banoa etxera  
banindoan korrika  
ta berriz putxura.

Gauzak egin ondoren  
sartu naiz dutxara  
saboia igurtzita  
ura goitik behera.

Hamarretan ohera  
neka-neka eginda  
bihar egun hobea  
izango ote da.

Nahia Larraza Razkin

[Aurkibidea](#)

### ***Azterketa eguna***

Doinua: *Triste bizi naiz eta*

Goizean azterketa  
urduri nago ta  
ez dut ezer Ikasi  
nago ni lur jota.

Lurdesek harrapatu  
iskanbila orain  
kopiatu dut guztia  
zer gertatuko orain.

Gero zigurtu naute  
ezin atera dut  
asteburu osoan  
noa ikustera.

Zero bat atera dut  
a ze sorte txarra  
hurrengorako genio  
ikasi beharra.

Barbara Poglla

[Aurkibidea](#)

### ***Zezena***

Doinua: *Maritxu nora zoaz*

Periko zezena  
dago baserrian  
Iruñara joateko  
prestatzen etxean.

Kamioian joango da bai  
Yakusiarekin  
eta belarra jaten  
Pintta behiarekin.

Iruñera ailegatu  
ta plazan sartu da  
toreroa hil da bai  
jendea begira

Azkenean jun da bai  
bere baserrira  
oso pozik Pinttarekin  
jolasten pilotara

Mikel Manero Arguelles

[Aurkibidea](#)

### ***Baserria***

Doinua: *Ama begira zazu.*

Nire nobioaren  
baserrira joan naiz  
biok lanean hasi  
ta gaizki atera zait.

Animali guztiek  
ihes egin zuten  
ordu batzuk pasata  
porrot egin nuen.

Oiloa ezin aurkitu  
gure etxe guztian  
aurkitu nuen bera  
beste baserrian.

Arrautza bota niri  
buruan gainean  
burua garbitu nik  
beraren soinean.

Olatz Ruiz Urdaniz

[Aurkibidea](#)

### ***Baserria***

Ohetik jaiki eta baserrira goaz  
furgoneta hartu eta baserrira  
baserrian aitona ikusi.

Animaliak ikusi  
eta gero bazkaltzera  
txerriak ikustera goaz.

Txerriak jan eta jan  
elefanteak bezala  
aurkitu ditut bost euro lurrean.

Hartu nahian putzura erori  
putzutik ezin atera  
nago baserrian.

Aiton-amonak atera ondoren etxera goaz.

Gorka Alonso Dominguez

[Aurkibidea](#)

***Super kuki taldea***

Doinua: *Haurrak ikasi zazue*

Super kuki taldea  
dakan errezeta  
platera jaki gozoz  
daukagu beteta.

Dena jaten badugu  
nolako tripota  
eta ez badugu jaten  
ze nolako pena.

Beste jatetxe horretan  
a ze janaria  
baino horretan  
a ze huskeria.

Ez dakigu nola egin  
ona janaria  
eskaxa da benetan  
jattetxe guria.

Itxaso Letona Marquinez

[Aurkibidea](#)

***A ze suerte txarra***

Doinua: *Maritxu nora zoaz*

Etxetik aterata  
putzuan erori  
arropa ia dena  
busti zait niri.

Gero ama haserre  
ni ta bestekin  
errieta bota eta  
zigortu nau egin.

Eskolara iritsi  
eta mina egin  
saltoka hasi eta  
leihotik erori.

Mairu Guinea Gasco

[Aurkibidea](#)

### ***Eder eta ni***

Doinua: *Haurrak ikas zazue*

Nire txakurra Eder  
oso polita da  
eta bere jabea  
ene baldin bada.

Atzo paseoan atera  
nuen ni kaletik  
eta txakur multzo bat  
zeterren atzetik.

Ni beraien iheska  
joan naiz korrika  
ta beraiek etorri  
atzetik segika.

Ez dakit zer egin nik  
beraiek joateko  
makil gogor marroi bat  
atera beharko.

Nerea Navarro Rodriguez

[Aurkibidea](#)

### ***Suerte txarra azterketan***

Doinua: *Isil-isilik dago*

Etxetikan atera  
putzu bat topatu  
kaleko urarekin  
dutxa freskoa hartu.

Zorte txarra nirea  
takila puskatu  
eta orain ez daukat  
gordetzeko leku.

Ez dute zer ikasi  
nahi nuen kopiatu  
baina irakasleak  
nau harrapatu.

Etxera ailegatu  
amari kontatu  
hauek errieta egin  
eta aitak zigortu.

Iosu Apestegia Diego

[Aurkibidea](#)

### ***Amonaren katua***

Doinua: *Haurrak ikas zazue*

Gure amonak dauka  
katu bat zaharra,  
mutur txikia eta  
kolorez zatarra,  
gixajoak bait du  
amona beharra  
eta jateko badu  
sotoan belarra.

Katua izan nahi du  
katu bat makarra,  
eta herri guztian  
izaten bakarra,  
horren ondorioz izan  
zen zine izarra,  
oso ospetsua izan zen  
katutxo nafarra.

Aintzane Diaz Mazkieran

[Aurkibidea](#)

### ***Suerte txarra***

Etxetik ateratzean  
banana zapaldu  
irristatu egin naiz  
eta oreka galdu.

Eskolara joatean  
kaka bat zapaldu  
kotxe bat pasa eta  
nau ni zipristindu.

Kintoak ikustean  
katean ni sartu  
irrist egin nuen ta  
nintzen lurreratu.

Etxera ailegatzean  
amak ni astindu  
dena gaizki irteteko  
ze arraio egin dugu.

Esteban Letona

[Aurkibidea](#)

### ***Larunbatean sorpresa***

Larunbata da eta  
sorpresa bat dut nik  
nire aita moto bat  
ekarri dit niri.

Gero mendira ekarri dit  
eta motoan ibili  
dibertitu eta gero  
etxera joan naiz.

Etxera joan baino lehen  
medikura joan naiz  
eta mediku batek  
gauza bat esan dit.

Buruko hezurtxo bat  
apurtuta dago  
horregatikan Madrilera  
joan ebakuntzeko.

Jorge Rivero Urteaga

[Aurkibidea](#)

### ***Jainkoa eta hilketa***

Doinua: *Maritxu nora zoaz*

Jainkoan sinisten duen  
ume txikitxoak  
otoitz egiten ari  
entzun da oihuak.

Oihuak Jainkoarenak  
zirela entzun zuen  
hau da egin zuena:  
leihotik bota zen.

Zerura igo zenean  
ez zegoen Jainkoa  
bakarrik geratu zen  
ume gizajoa.

Umea aspertuta  
Lurrera jaitsi zen  
Biblia hartu zuen ta  
hasi irakurtzen.

Inixio Amillano Casteig

[Aurkibidea](#)

### ***Nire egun txarra***

Doinua: *Maritxu nora zoaz*

Seietan esnatu naiz  
eta oso haserre  
gainera nire amari  
gosaria erre.

Azterketa egin dut  
zinemara ezin joan  
eta gainera gero  
bi kaka zapatan.

Ibaira erori naiz  
nago orain bustita  
eta partidu bat  
kantzelatu, jauna!

Dilistak erre-erreak  
jan behar ditut izan  
eta nire ohea  
lurrera da joan.

Marina Herrero Diaz

[Aurkibidea](#)

### ***Zorte txarra***

Doinua: *Maritxu nora zoaz*

Ostirala zenean  
hizkuntza kontrola  
nik ez nekien ezer  
ni bai tontoloa.

Inixiori kopiatu  
Iñaki harrapatu  
errieta ona eta  
egin zen haserretu.

Gero joan etxera  
ama harrapatu  
txokolatea jan barik  
amak ni zigortu.

Gelan aspertuta  
etxetik ihes egin  
ama harrapatu ta  
gero irten ezin.

Patxi Letona Markinez

[Aurkibidea](#)

## **Suerte txarra eta hippy**

Doinua: *Isil-isilik*

Erlojua atzeratu  
zait gaur goizean  
eta ez naiz ailegatu  
betiko orduan.

Kaixo anai arrebak  
bakea nahi dugu  
mundua aldatzera  
etorri gara gu.

Behean nengoela  
naiz ni ohartu  
motxila eta giltzak  
egin zait ahaztu.

Hark maitatzen nau  
eta ni maite dut hura  
elkar maita dezagun  
ta maite natura.

Zaira Salazar Vinagre

[Aurkibidea](#)

## ***Suerte txarra***

Doinua: *Maritxu nora zoaz*

Etxetik ateratzen  
egin dut irrista  
putzu handi batean  
erori ta plaxta!

Amonaren etxera  
joan naiz bazkaltzera  
espagetiak erori  
nire magalean.

Errieta bota dit  
irakasleak gelan  
zeroa lortu bait dut  
gaur gazteleran.

Ohean nengoela  
amonak niri  
sustoa hartu eta  
naiz ni erori!

Idoia Jimenez Luceño

[Aurkibidea](#)

### ***Egun txarra***

Doinua: *Ama begira zazu*

Katu beltza ikusi  
dut gaur esnatzean  
hobeto dut ni  
gaur geratu etxean.

Kopiatzen ikusi  
nau irakasleak  
bai zorte txarra hau  
egin du nireak.

Patioan geratu  
naiz bai zorte txarra  
baina azkenian  
geratu naiz barrez.

Lagunak bazkaltzera  
ninduen gonbidatu  
baina zeuden jakiak  
niri ez gustatu.

Iker Marcos Betelu

[Aurkibidea](#)

### ***Nire animaliak***

Doinua: *Maritxu nora zoaz*

Niri gustatzen zaizkit  
asko animaliak  
mota guztietakoak  
txiki ta handiak.

Hamabi katu ditut  
nire baserrian  
denak oso politak  
marrak gorputzean.

Txerriak eta behiak  
oiloak oilarrak  
ez dira oso garbiak  
baizikan zikinak.

Orain ez dut aurkitzen  
nire txakurtxoak  
non egongo ote da  
nire laztantxoak.

Marta Borrega Gonzalo

[Aurkibidea](#)

### *Nire herria*

Ni bizi naiz Altsasun  
nire herria da  
oso polita da ta  
benetan handia.

Altsasuko mendiak  
handiak benetan  
lore politak daude  
baso guztietan.

Denda asko badaude  
kale guztietan  
merkealdiak daude  
herriko dendetan.

Nire herrian dago  
Zelandi eskola  
bertara joaten naiz ni  
asko ikastera.

Mirari Marcos Mugarza

[Aurkibidea](#)

### *Ni, nire familia eta gustuak*

Ni altsasukoa naiz  
Raul dut izena.  
Xabier albokoa  
lagunik onena.

Hamar urte ditut nik  
eta ile hori  
nire kirol maiteak  
futbola dut hobby.

Telebista ikusi  
arratsaldeetan.  
Akordeoia jotzen  
astelehenetan.

Bi aiton-amon ditut  
eta altsasuarrak.  
Beste biak direla  
iturmendiarrak.

Raul Claver Moreno

[Aurkibidea](#)

### *Nire familia eta ni*

Ni Altsasukoa naiz  
izena Irati  
hamabi urte ditut  
ta ez oso txiki.

Aita Dabid da eta  
da oso txikia  
Donostiakoa da ta  
ta oso bizia.

Ama Altsasukoa  
izena Laura du o  
so polita da ta  
eguna alaitu.

Anai bat ere dut  
izena Gorka du  
beti nirekin dago  
jolasten alaitsu.

Irati Anton

[Aurkibidea](#)

### *Oporrak heldu dira!*

Bukatu da eskola  
eta ere bronkak.  
Hau zorrea nirea  
heldu dira oporrak.

Onenak udakoak  
ta ia iritsi dira.  
Goazen denok mendira  
bestela hondartzara.

Oporretan Cambrilsa  
txabola txikira.  
Nahi nuke nik joatea  
hotel garestira.

Kotxera igo eta gero  
dator itxoitea.  
Aprobetxatu ordua  
siesta botatzean.

Peio Zabalza Lopez

[Aurkibidea](#)

## ***Kirola***

Gustuko dut gauza bat  
benetan bihotzez  
kirola egitea  
ona da nire ustez.

Lagunekin jolasten  
dut beti kalean  
zoritxarra nirea  
etxera joatean.

Marihuana ez erre  
hori bai da txarra  
hobeto osasuna  
eta askoz jatorra.

Azkenik bukatu da  
gaurko egun polita  
egun osoan nago  
zeharo esnatuta.

Ane Cantero Crespo

[Aurkibidea](#)

## ***Natura***

Mendietan loreak  
larreetan ere.  
Guztiok bat eginda  
maiteak abere.

Perretxikoak hainbeste  
lurretik ez hartu.  
Bestela galdu egin  
behar da, ez ahaztu.

Animaliak galdu  
egin ahal dira.  
Ez hartu hainbeste  
ez hartu guztira.

Animaliak maite,  
animaliak zaindu.  
Horrela mundu hobe  
lortuko dugu guk.

Irati Bergara Campo

[Aurkibidea](#)

### *Nire familia*

Ni Altsasukoa naiz  
izenez Nerea  
hamar urte ditut  
ta gustuko morea.

Nik arreba bat dut ta  
izenez Ainhoa  
bederatzi urteko  
arreba gaiztoa.

Ama da nire ama  
ez da ez zaharra  
oso ona nirekin  
ta ere azkarra.

Nik aita bat dut eta  
izena da Juanrra  
nirekin atsegina  
ta oso altsasuarra.

Nerea Llamas Fernandez

[Aurkibidea](#)

### *Ikasi ez nuen kontrola*

Ikasi ez nuen ta  
ikasita hamarra  
azterketa zegoen  
a ze zorte txarra.

Orduan kopiatu ta  
harrapatu egin nau  
orain ikusita  
harrigarria da hau.

Ta hau zen matekoa  
orain hiru, txarra,  
dela nirea, zero,  
biharko hamarra.

Hau da kontrolarena  
istorio polita  
orain ez bukatu  
hau egun polita.

Yuri Pablo Martinov

[Aurkibidea](#)

## ***Mendia***

Altsasuko mendia  
lore askorekin  
hobeto izango zen  
lore gehiagorekin.

Zuhaitz pila bat daude  
hamaika lurrean  
pila bat airean  
batzuk jaiotzean.

Negua ez etorri  
bestela loreak  
guztiak hilko dira  
zuhaitzak pobreak.

Agur mendi polita  
zu joan lotara  
ni bidetik etxera  
ta gero ohera.

Iker Gomez Bengoetxea

[Aurkibidea](#)

## **Kontrola**

Mirariren etxera  
noa bazkaltzera  
jolastu egin genuen  
gu biok mordoa.

Hemen dut nik kontrola  
Nik ez dakit ezer  
ikasi behar nuen ni.  
A ze tuntuna naiz.

Gaur esaten  
digute kontroleko nota  
eta ni atera dut  
zero patatero.

Suspentsua jarrita  
joan naiz etxera  
ama zaplastako bat  
jo dit aurpegian.

Henar Cid

[Aurkibidea](#)

### *Nire familia*

Ni, Altsasukoa naiz  
izena Ione da  
hamar urte ditut  
ta bi anaia etxean.

Haien izenak dira  
Ane ta Joseba  
biak oso bihurri  
bata eta bestea.

Amaren izena da  
Axun amatxoa  
oso jenio txarra du  
baina oso ona.

Horrela bizi naiz ni.  
Etxekoenekin.  
Ondo pasatu eta  
bihar lagunekin.

Iasone Insasuti Gomez

[Aurkibidea](#)

### *Nire familia*

Nik hamar urte ditut  
izenez Amaia,  
ez naiz oso polita  
baino bai alaia.

Bost urteko ahizpa  
izena du Leire,  
oso ahizpa ona  
batzutan txarra ere.

Berrogei urtekoa  
da nire amatxo  
Ana dauka izena  
ta ez dabil mantso.

Egunero aitatxo  
joaten da lanera  
dirua ekartzeko  
gure etxe handira.

Amaia Zubikoa

[Aurkibidea](#)

## ***Loreak***

Lore oso politak  
hemen ere daude  
urdinak, arroxak ta  
berdeak hementxe.

Nire lagun onena  
izenez Lorea  
bere ilea bada  
benetan polita.

Mendira joango naiz  
goizeko hamarretan  
loreak ikustera  
hango tokietan.

Bukatzeke loreekin  
esango dut hauxe:  
loreak badirela  
politenak hementxe.

Ainhoa Palomino Cid

[Aurkibidea](#)

## ***Altsasu eta Zelandi***

Altsasu nire herria  
oso polita da  
jende asko eta alai  
hemen bizi dena.

Nire ikastetxeak  
bi kolore ditu  
bata urdina eta  
bestea horia du.

Nire ikastetxeak  
frontoi ederrarekin  
pilotan jolasteko  
lagun guztiekin.

Zelandi ikastetxean  
ikasten dut ene  
ta klasean badira  
hamazazpi ume.

Xabier Ormazabal Anguiano

[Aurkibidea](#)

### *Nire familia eta ni*

Ni Altsasukoa naiz  
izenez Olaia  
hamar urte ditut  
ta ere oso txikia.

Aitatxo Txomin da ta  
biziz betekoa.  
Kaxak altxatzerakoan  
mina hankakoa.

Amatxo maitea da.  
Izena Raquel du  
guztiok alaitzea  
du berak gustuko.

Arreba bat ere dut  
izena Mainer du  
beti nirekin dago  
jolasten alaitsu.

Olaia Gramizo Candelas

[Aurkibidea](#)

### *Nire laguna*

Ostirala eguna  
gustuko dut orra  
zeren etorriko da  
mutil bat jatorra.

Larunbata eguna  
bai egun ederra  
zeren nire laguna  
joko du gitarra.

Lakura joango gara  
Fanta edatera  
gero ere bai noski  
uretan sartzera.

Igandea eguna  
bai egun tristea  
zeren nire laguna  
joango da herrira.

Axel Gonzalez Nogueira

[Aurkibidea](#)

### **Suerte txarra**

Asteburua zen ta  
plan ona geneukan  
festarako gogo  
etorri zitzaidan.

Zerbait eraman behar  
genuen lagunak  
dohainik ez da afaltzen  
ez gara tuntunak.

Bat-batean nigana  
etorri da ama:  
“altxatu ametsetan  
bazaude laztana”.

Amonaren etxera  
noa azkenean...  
aldaketak gertatu  
baitira planean.

Amonaren etxean  
bagaude bi neska  
amona eta nik egin  
behar dugu festa.

Oihane Armendariz Soriano

[Aurkibidea](#)



[www.altsasukokima.com](http://www.altsasukokima.com)

## **Bazkaria gogoko, ez**

Goizean altxatu naiz  
irrika handian  
asko gozatu nahi dut  
gaurko bazkarian.

Ainararen etxera  
heldu naizenean  
usain txarra zegoen  
mahaiaren gainean.

Lehenengoan dilistak  
bigarreanean arraina  
azkenik mazedonia  
txarra alajaina!

Platerean utzi dut  
nire bazkaria  
etxean jan behar dut  
bokata handia.

Ane Martinez Mazkiaran

[Aurkibidea](#)

## **Harrapatu naute**

Hizkuntza azterketa izan  
ikasi gabe egin  
kopiatzen hasi naiz  
baina segi ezin.

M<sup>a</sup> Javier ikusi  
hanka sartu nuen.  
A ze bronka jaso dut  
ze haserre zuen.

A ze zero jaso dut  
aitzakia jarri  
baina sinetsi ez ta  
mobila ekarri.

Aitari deitu zion  
beste bronka jaso.  
A ze gaixoa ba ni  
ta ezin eroso.

Iñigo Tobar Beperet

[Aurkibidea](#)

## **Asteburua iristeko irrikaz**

Atzo baserrira joan  
animaliak zaindu  
lan ta lan eginez  
ibili gara gu.

Zelaiak ikusita  
dibertigarria  
iruditu zitzaigun  
den-dena garbia.

Animaliengana  
joan egin ginen  
baina ze usaina  
sumatu genuen.

Asteburua igaro  
lanak bukatuta  
penaz geunden guztiok  
etxera helduta.

Asier Palacios Maiza

[Aurkibidea](#)

## **Harrapatu naute**

Aurreko astelehenean  
ze buruko mina.  
Ingurunekoa izan zen  
aurreko examina.

Irakasleak kopiatzen  
harrapatu ninduen  
beldurrak gorpu osoa  
hartu egin ninduen.

Nire betiko eskusa  
borragoma eroria  
nahiz eta irakasleak  
bota bronka handia.

Azken etxera  
eraman dut oharra  
nola kaka guraz  
momentu txarra.

Eneko Casteig Agirre

[Aurkibidea](#)

## **Bazkaria gogoko, ez**

Enekoren etxera  
joan naiz jatera.  
Baina zer atera dit  
letxuga platera.

Orduan esan diot  
ez dudala nahi  
eta ni gogo gutxiz  
jaten hasi naiz bai.

Otzikara eman dit  
tripa barreanean  
komunera joan naiz  
lasterka bizian.

Komunean nengoela  
egin naiz makurtu  
ta botaka egin dut  
ta lasai geratu.

Jon Otermin

[Aurkibidea](#)

## **Harrapatu naute**

Inguruko kontrola  
dut gaur eskolan  
ez dute zer ikasi  
ta badut nahiko lan.

Kopiatzen ikusi dit  
gure irakasleak  
nire liburu denak  
jan ditu txakurrak.

Kriston bronka bota dit  
nire aitzakiak  
ez ditu sinistu ta  
a zer penagarria.

Bukatu dudanean  
mahaira eraman diot  
baina gure azterketan  
zortzi bat atera dut.

Javier Guisado Rodriguez

[Aurkibidea](#)

## **Bazkaria**

Gaurko eguerdian  
Jorgeren etxera  
bazkaltzera joango naiz  
kotxea hartuta.

Bere ama etorri  
kotxea gidatu  
eta bere etxeraino  
eraman gaitu.

Bazkaria prestatuta  
deitu egin gaitu  
garbantzua azarekin  
prestatu egin ditu.

Pixka bat hartu degu  
koilara batekin  
botaka egin dut nik  
tripako minarekin.

Julen Mendia Diez

[Aurkibidea](#)

## **Harrapatu naute**

Egun polita zen  
soinketa neukan  
baina irakasleak  
sukarra zeukan.

Gu oso ziur geunden  
egingo genula  
hizkuntza ala  
mateko kontrola.

Kontrola mahai gainean  
ez dakit ezerrez  
besteri begira  
kopiatu ezin ez.

Maria Javierri esan  
ni ez nintzela izan  
begia okertu  
eskua buruan.

Amaia Abucide Aylagas

[Aurkibidea](#)

## **Suerte txarra**

Kalera irten nintzen  
lagunak bilatu  
baina mutilak inon  
eta etxera bueltatu.

Etxera joan nintzen  
ez zegoen inor  
aspertu egin nintzen  
ta ezin segi hor.

Txakurra hartu eta  
kalera joan nintzen  
euria ari zuen  
dena busti nintzen.

Berriro etxera joan  
betiko antzera  
ohera sartu nintzen  
lo-lo egitera.

Jorge Misiego Torralba

[Aurkibidea](#)

## **Harrapatu naute**

Atzo arratsaldean  
laguna begira  
kontrola suspenditu  
tristeza hori da.

Erljioa da ta  
gustuko ez dudodana  
atzo gertatukoa  
izan zen txarrena.

Nire aita  
esan dit zuretzat zigorra  
zu hori ez egin ta  
ongi biziko zara.

Orain eskolara  
hori ez dut gustuko  
baina beti bezala  
zigorra dut oztopo.

Gaizka Lopez Berasategi

[Aurkibidea](#)

## **Asteburuko plana**

Irrika daukat aste  
burua etortzeko.  
Ekipaia eginda  
Jakara joateko.

Eskiatzera joango  
gara ia denak.  
Seguraski egingo  
ditugu lagunak.

Nik badakit zer egin  
lehenago etortzeko  
lehenago oheratu  
eta hor bertan dago.

Ostirala goizean  
sorpresa hartu nuen.  
Aitak gure bidaiaria  
suspenditu zuen.

Maitane Calleiras

[Aurkibidea](#)

## **Suerte txarra**

Goizean jaiki eta  
gosaltzeko nahian  
hozkailua iriki  
gosaria bilan.

Despentsara joan nintzen  
gosari bila  
ta ez zegoen ezer.  
A ze nahaspila.

Bajerara jaitsi ta  
esnerik ez zegoen  
joateko eskolara  
ordua heldu zen.

Joan nintzen eskolara  
sartu ikasgelara  
examin bat zegoen  
ta bi bat atera.

Garcia Letona

[Aurkibidea](#)

## **Harrapatu naute**

Andereñoak banatu  
digu examina  
eta niri jarri zait  
tripetako mina.

Gero lurrera bota  
ta ondokoari  
papera begiratzten  
nago ni adi-adi.

Andereñoa ondotik  
pasatu da laster  
eta niri esan dit:  
zer gertatzen da? Zer?

Negatibo bat jarri  
eta pasiloan  
hemen ikasi gabe  
ez goaz inora.

Julen Grado Muñoa

[Aurkibidea](#)

## **Bazkaria**

Eskolan nengoela  
Mikel etorri ta  
bere etxera joateko  
egin dit gonbita.

Etxera ailegatu  
motxila ta guzti.  
Mahaian babarrunak  
ta hiru odolki.

Ezkontza nuela  
jarri nun aitzaki.  
Hortik atera nintzen  
biziki-biziki.

Gaurtik aurrera  
(beti) joango naiz etxera  
amak jartzen didana  
pozik bazkaltzera.

Ander Vinagre Diego

[Aurkibidea](#)

## **Asteburuaren zain**

Osteguna iada  
Nire egun txarrena

Asteburua nahi dut  
Ia ailegatzeko.

Asteburua egun  
onenetakoa.

Lagunekin ibili  
Nahi dut bromaz-broma.

Ostirala oraindik  
Ailegatu gabe

Lana oraindik daukat  
Ia egin gabe.

Hasier Aldatz Goikoetxea

[Aurkibidea](#)

## **Harrapatu nau**

Mateko azterketak  
kezka ematen dit.  
Oso-oso zaila da  
nik zortzi dakizkit.

Ondokoak badaki  
zein den erantzuna  
eta nik esan diot:  
txibatu laguna.

Bisi harrapatuta  
ez da gauza ona  
aitzakia atera  
ta bioi zerona.

Hurrengoan ikasi  
hau eskarmentua.  
Oso gogorra izan da  
gaur gertatutakoa.

Iker Guzman Tiscar

[Aurkibidea](#)

## **Harrapatu nau**

Inguruko azterketa  
izan dugu lehen  
eta ia guztia  
ederki nekien.

Ta galdera batera  
heldu nintzenean,  
a zelako sustoa  
hartu nintzenean.

Ez nuen gogoratzen  
bere erantzuna  
eta ondokoa(ri) zeukan  
erantzun zuzena.

Andereño gaiztoa  
konturatu egin da  
eta negatiboak  
ailegatu dira.

Noelia Reudo Gallego

[Aurkibidea](#)

## **Bazkaria**

Lagun baten etxera,  
joatera joan nintzen.  
Jolastu ta jolastu,  
jaten hasi ginen.

Barazkiak ikusi,  
jaten hasi nintzen.  
Pentsatu ta pentsatu,  
gezurra esan nuen.

Nahi zeta ez gustatu,  
den-dena jan nuen.  
Oso azkar bukatu,  
jolastu nahi nuen.

Jaten bukatzen bai,  
jolastera joan bai.  
Azkenean etxera  
gogoz joan nintzen.

Alex Costa Valencia

[Aurkibidea](#)

## **Asteburuaren zain**

Osteguna oraindik.  
A ze aspergarri.  
Asteburuarekin  
pentsatzen jarri.

Sakanako lasterken  
sari banaketa  
oso pozik nago ni  
lehena naiz eta.

Berdin da ze geratu  
denontzat saria  
iruditzen zait ongi  
hori da egia.

Olaztin izango da  
sari banaketa  
ez dago oso urruti  
bost minutu eta.

Cristina Aldeano Gomez

[Aurkibidea](#)

## **Asteburuaren zain**

Asteburua dator.  
Irrikitan gaude.  
Ihauteriko gauzak  
prestatzeko daude.

Bitxiak eta zailak  
Egin behar ditugu.  
Aurtengoan makarraz  
joan behar dugu.

Bukatu eta ondoren  
jolastera joan  
ondo pasatuko dut  
lagunen ondoan.

Futbolean jolasten  
ondo pasatu dut  
oso momentu onak  
pasatu ohi ditut.

Ainara Montoya

[Aurkibidea](#)

## Asteburua

Asteburua heltzeko  
irrikitan nago ni  
horixe egiteko  
gaixo naiz ipini.

Marai Javier bisita  
egitera dator  
ni oso arduratua  
geratu nintzen hor.

Andereñoari esan  
diot ni gezurra  
haserretuko denik  
badaukat beldurra.

Maria Javier ez da  
konturatu eta  
azkenean ailega  
zen asteburua.

Larunbat partidan  
irabazi dugu.  
San Ignazio baino  
hobeak gara gu.

Izaskun

[Aurkibidea](#)



[www.altsasukokima.com](http://www.altsasukokima.com)

## **Zorte txarra**

Gaur matematikako  
azterketarekin  
problema izan ditut  
irakaslearekin.

Albokoari kopiatzen  
pilatu egin dit  
gero matematikan  
0 bat jarri dit

Ondoren bazkaltzeko  
poltsiko begira  
nituen 5 euroak  
desagertu dira.

Gaur nik izan dut  
jada oso zorte  
txarra kotxe batek azpian  
hartu dit txakurra.

Ainhoa Santano

[Aurkibidea](#)

## **Bazkaria**

Izaskunen etxera  
joan naiz jatera  
bat-batean ikusi  
dilista platera.

Izaskun joan denean  
pisa egitera  
dilistak bota ditut  
armairu batera.

Bainutik etortzean  
ze sorpresa, hara!  
Beste plater dilista  
bota dit gainera.

Azkenean kendu dizkit  
dilista platera  
ta korrika batean  
joan naiz etxera.

Maialen Misiego Diaz

[Aurkibidea](#)

## **Harrapatu naute**

Hizkuntzako kontrolan  
sartu zait zalantza  
ondokoari begira  
ze momentu latza.

Lehiotik bota nahi  
itxita zegoen  
ta orduan atetik  
eskapo egin nuen.

Etxerako bidean  
amarekin topo  
irakaslea deitu  
egin ziolako.

Eskolara eraman  
dit nire amak  
ta irakasleak bota  
niri errieta.

Etxerako bidean  
nik nire amarekin  
diskursoa bota dit  
zigorra batekin.

Anne Claver Zabala

[Aurkibidea](#)



[www.altsasukokima.com](http://www.altsasukokima.com)

## **2. zorte txarra**

Izabara joateko  
irrikitan nago  
lau egun falta dira  
maleta non dago?

Soinketako klasean  
gehiegi mugitu  
bankutik erori ta  
oina bihurritu.

Ez dakit Izabara  
joan behar dudan  
hankako min honekin  
aurkitzen naiz dudan.

Azkenan joan behar naiz  
Izabara baina  
gorputz guztian daukat  
espraien usaina.

Lucia Berretaga Berrio

[Aurkibidea](#)

### ***Bazkaria***

Lagun baten etxera  
joan naiz bazkaltzera  
oso txarra zegoela  
banoa etxera.

Piper beteak zeuden  
untxi haragiaz  
tomate ta tipulaz  
ta baita letxugaz.

Ni jarri naiz urduri  
ez dut bazkaldu nahi  
tripako mina daukat  
ni banoa Unai.

Unairen etxetikan  
atera naiz gaixo  
ez dut berri  
joango a\_\_\_\_\_xa.

Francisco

[Aurkibidea](#)

### ***Hau bai suerte txarra***

Gaur ohetik erori  
ta hanka apurtu  
hanka sendatu eta  
eskuan min hartu.

Eskaileratik erori  
hartu kolpe txarra  
oso triste jarri naiz  
orduan negarra.

Orduan tinbrea jo  
ama ireki ta  
lagunak izan dira  
sorpresa polita.

Hanka sendatu eta  
ikastolara joan  
etxeko lana hartu  
nire etxean.

Pablo

[Aurkibidea](#)

### ***Bazkaria***

Lagun baten etxera  
joan naiz bazkaltzera  
hain zen oso txarra

Bota ez egiteagatik  
kristala hautsi dut  
handik ziztu bizian  
ospa egin dut.

Eta bazkaldu ondoren  
nire lagunak dira  
eta jolastera joan naizenean

Han zegoen eta esan nion  
agur eta beno eman nien  
eta hil egin ziren ia denak.

Adur Aldaregia

[Aurkibidea](#)

*Lagun baten etxera joan eta gorrotatzen duzun bazkaria jarri dizute*

Gaur gonbidatu naute  
Aneren etxera  
bazkaltzeko zegoen  
babarrun platera.

Aurpegi ona jarri  
ahoa zabaldu  
sudurrari helduta  
pazientzia ez galdu.

Sukaldean zegoen  
arraina begira  
ez ote da izango  
bigarren platera.

Ane barka nazazu  
badaukat nahikoa  
amak deitu nau eta  
etxera banoa.

Nerea Lapuente Lopez

[Aurkibidea](#)



[www.altsasukokima.com](http://www.altsasukokima.com)

*Lagun baten etxera joan eta gorrotatzen duzun bazkaria jarri dizute... borraja*

Atzo larunbata zen  
oso egun bizia  
lagunaren etxean  
neukan bazkaria.

Platerean borraja  
bai nazkagarria  
niri ez zait gustatzen  
barazki itsusia.

Gero tripako mina  
sartu bapatean  
ordurako nengoen  
ni komun bidean.

Bigarren platerean  
txuleta zetorren  
tripako mina pasa  
ta dena jan nuen.

Borraja alde batera  
txuleta tripara  
ni ta nire laguna  
joan ginen plazara.

Hurrengo asteburuan  
joango naiz bertara  
borraja utzi eta  
txuleta jatera.

Peio Zabaltza Lopez

[Aurkibidea](#)



[www.altsasukokima.com](http://www.altsasukokima.com)

*Suerte txarrekoa zara. Gaur ere....*

Larunbata da eta  
berandu jaiki naiz  
lagunak mobiletik  
deitu niri maiz.

Iruñean zeudela  
kontatu dit niri  
ta ari iristeko  
da beranduegi.

Amak eraman eta  
ni joan naiz lurrera  
ondoren altxatuta  
banoa eroatera.

Etxera iritsita  
amatxok zigortu  
dirua gastatu dut  
ta gelan geratu.

Amets Lertxundi

[Aurkibidea](#)

*Suerte txarrekoa zara. Gaur ere....*

Etxetik aterata  
joan naiz parkera  
ta erori egin naiz  
ur putzu batera.

Etxera abiatu naiz  
arropa aldatzera  
ta txakur baten kaka  
zapaldu gainera.

Parkera ailegatu naiz  
ia-ia hilik  
ta beisbol bate batek  
buruan eman dit.

Orain daukat etxera  
abiatu beharra  
gaurkoz akabatu da  
nire suerte txarra.

Janire

[Aurkibidea](#)

### ***Klaseko mutilekin baserrira***

Klaseko mutilekin  
eskursio batera  
baserrira joan gara  
gauzak ikustera.

Abereak ikusi  
hori bai kiratsa  
hala ere gozatu dut  
haiei ikusita.

Zaldi, zezena, oilarra  
baitere arkumea  
zein gauza polita  
hau da hau unea.

Baserritik atera  
autobusa hartuta  
gaurko bidaiarekin  
ni nago poztuta.

Iker Meaza

[Aurkibidea](#)

### ***Zure lagun baten etxera joan zara eta gustatzen ez zaizun horixe jarri dute plateran***

Ikerrek gonbidatu  
nau gaur bazkaltzera  
barazkiak atera  
ditu mahai gainera.

Janari hori ez da  
oso atsegina  
lagunari esan diot  
nuela tripan mina

Gero atera dute  
lasaña plateran  
eta tripako minak  
joan zait hegan.

Jaten hasi naiz eta  
zegoen gozoa  
eta agudo jan dut  
platera osoa.

Iñaki Mendieta

[Aurkibidea](#)

*Azterketa egiten ari zara eta irakasleak ondokoari begira harrapatu zaitu.*

Erljio azterketa  
mahaian jarri zuten  
irakurri ondoren  
ezer ez nekien.

Ondokoari begira  
kopiatu nahian  
andereñoa haserre  
dago bere mahaian.

Andereño etorri da  
tximista bezala  
aurpegi itsusiak  
jarri dizkidala.

Berak sinistu egin du  
nire arrazoa  
eta hortxe bukatu da  
beraren sermoia.

Nota hoberena nik  
atera dut gelan  
nik badut zorte ona  
ta nabil primeran.

Josu

[Aurkibidea](#)



[www.altsasukokima.com](http://www.altsasukokima.com)

*Suerte txarrekoa zara.Gaur ere....*

Esnatu naizenean  
oso berandu zen  
handik atera arte  
eguzkia zegoen.

Eskolako bidean  
hasi du euria  
erori ta hartu dut  
kolpe bat handia.

Anbulantzia etorri da  
ni eramatera  
bertatik erori naiz  
joan naiz pikutara.

Infernu gorri-beltz hau  
ez da bukatuko  
hamabi autok naute  
azpian hartuko.

Mikel Flores

[Aurkibidea](#)

*Klasekoekin baserrira joan*

Gelako lagunekin  
baserrira joan  
hango bizimodu  
nolakoa ote zan.

Animalia mota  
asko ikusita  
eta han zegoena  
zen oso polita.

Han zeudenak ziren  
zezena, behia ta  
askoz gehiago ere  
ez ziren han falta.

Gainera han zegoena  
kirats handia  
ezin zen agoantatu  
ta etxera joan.

Jon Goikoetxea

[Aurkibidea](#)

### ***Erlijioko azterketa***

Erlijioko azterketa  
egiten ari naiz  
ariketa guztiak  
berdinak dira maiz.

Laugarren ariketa  
egiten nagoela  
ondokoari begira  
gelditu naizela.

Andereño pasa  
ta ikusi egin nau  
eta ordain modura  
jarri dit zigor hau.

Gela garbitu behar  
erratza hartuta  
eta gela zegoen  
guztiz zikinduta.

Estefania Malara

[Aurkibidea](#)

### ***Bazkaria***

Andresen etxean  
egin naiz geratu  
bazkaltzeko zutena  
ez zait ez gustatu.

Baina jan egin ditut  
hango barazkiak  
ta gero komunatik  
joan dira guztiak.

Etxera abiatu naiz  
janaria jatera  
ta espagetiekin  
bete dut platera.

Iker Arregi

[Aurkibidea](#)

*Suerte txarrekoa zara. Gaur ere...*

Lagunen bila noa  
osteguna zela  
izotza azalduta  
erori lurrera.

Altxatu eta gero  
hasi naiz lasterka  
ta konturatu gabe  
zapaldu dut kaka.

Lagunekin elkartu  
eta joan dira  
ni triste gelditu naiz  
beraiei begira.

Maialen Ciria

[Aurkibidea](#)

*Suerte txarrekoa zara. Gaur ere...*

Egunero bezala  
berandu gosaldu  
motxila hartu eta gero  
autobusa galdu.

Eskola heldu ta gero  
zer nolako pena  
beste batekin joan zait  
lagunik onena.

Etxerako bidean  
txakur batek hozka  
bidearen erdian  
berriro botaka.

Euria hasi eta  
joan naiz etxera  
ta ama etorri da  
bronka botatzera.

Ane Bañasco

[Aurkibidea](#)

### ***Bazkari txarra***

Gaur goizean joan naiz  
Julenen etxera  
berarekin jolastu  
eta bazkaltzera.

Bazkaltzeko lekak eta  
ondoren legatza  
postrerako banana  
gainera garratza

Ihes joan naiz etxera  
bazkaltzeko asmoz  
etxean soilik zeuden  
hiru kilo arroz.

Nik ez dakit egosten  
arroza lapikoan  
urduri jarri naiz ta  
sartu dut labeen.

Aitor Berastegi

[Aurkibidea](#)

### ***Janari txarra***

Lagun baten etxean  
joan naiz ni jatera  
ta garbantzuak jarri  
didate platerean.

Bigarrenerako da  
arrain merkeena  
inoiz probatu  
dudan txarretarikoena.

Gosez amorraturik  
postrea espero  
kiwi ustel handia  
jarri nau oso ero.

Beti nahi nuen  
Aitorren etxean  
jolastera agian  
sekula jatera.

Mikel Olló Etxarren

[Aurkibidea](#)

### ***Baserrira***

Autobusetik jaitsi  
eta joan gara  
mendi hartan dagoen  
baserri hartara.

Bokata jan ondoren  
gatoz jolastera  
animali txikiak  
joan naiz ikustera.

Ai zer gosea dudan!  
goazen bazkaltzera  
eta gero berriro  
goazen jolastera.

Zaldi gainean nabil  
behitxoak jeztera  
etorri niregana  
etorri jatera.

Miren Beloki Arrasate

[Aurkibidea](#)

### ***Bazkaria***

Gaur eskolan sartu naiz  
lau orduak pasa  
ta orain bazkaria  
akabo jolasa.

Lehenik ilarrak  
bai bazkari txarra  
balkoitik bota nahi dut  
orduan bai farra.

Bigarrena arraina  
janaria nazka  
hirugarrena kiwi  
hori bai da kaka.

Kalean amaitu da  
kartzela saioa  
zerua begiratu  
hau da hau giroa!

Javier Mariezkurrena

[Aurkibidea](#)

***Zorte txarrekoa zara. Gaur ere...***

Gaur goizean jaiki naiz  
gosaria bota  
katilua apurtu da  
lur gogorra jota.

Futbolean hasita  
huts egin dut gola  
oso erraza zela  
erori lurrera.

Urtebetetzea da  
ni nago poztuta  
opari asko ditut  
ta bat apurtuta.

Geroago afaldu  
eta ohera joan  
egun hobea izango  
dut hurrengoan.

Lorea [Aurkibidea](#)

***Asteburua***

Gaurko asteburua  
berezia izanik  
anai edo arreba  
izan behar dut nik.

Galdetu dut poz-pezik  
neska edo mutil den  
erantzun zidaten  
neskatxoa omen.

Nahia izena du bai  
hori jarri nion  
aitak konforme jarri  
eta deitu ziur.

Orain etxera noa  
ahizparekin noa  
jolastu behar dugu  
gu biok mordoan.

Andrea [Aurkibidea](#)

### ***Bazkaria***

Lagun baten etxera  
joan naiz bazkaltzera  
eta niri legatza  
didate atera.

Janaria ez dut jan  
ta amak orduan  
etxetik bidali dit  
txakurren moduan.

Hurrengo egunean  
semea ikusi nun  
kezkaturik zetorren  
eta kopetilun.

Nik esan nion lasai  
ez nago haserre  
baina legatz txar horrek  
urdaia dit erre.

Julen Martija

[Aurkibidea](#)

### ***Suerte txarra***

Lagun bat etorri da  
gaur nire atzetik  
eta adarra sartu dit  
nire ipurditik.

Ospitalera joan naiz  
eta gero hilerrira  
eta ia ez dut  
suerte txarra.

Gero berpiztu nintzen  
jainkoa bezala  
eta ongi pasa nuen  
egun mundiala.

Baina gero ondoren  
negarrez hasita  
medikuari egin  
behar nion bisita.

Xabier Ustarroz

[Aurkibidea](#)

### *Azterketa*

Azterketa badugu  
ingurunekoa  
nik uste dut ikasi  
dudala nahikoa.

Baina gero jarri naiz  
erabat urduri  
aurpegia jarri zait  
dena txuri-txuri.

Ondokoari galdetu  
diot honetan  
noski bai gure Blankak  
ikusi nau hartan.

Hamarna atera nahian  
atera dut bosta  
etxera joan naiz lasai  
eta hori bronka.

Maidier Eizagirre

[Aurkibidea](#)

### *Suerte txarra*

Mikelek futbolean  
txartel gorria du  
kolpe bat eman du ta  
heldu da berandu.

Lagun baten etxera  
bazkaltzera joan da  
lanja ta legatza  
doa komunera.

Matematikako orduan  
maisua galdetu  
etxeko lana Mikel  
al duzu bukatu?

Mikelek esan dio  
etxean utzi dut  
maisua haserre  
oharra idatzi.

Alberto Maestre

[Aurkibidea](#)

### ***Suerte txarra***

Loteria erosi dut  
ez dakit zertarako  
gaur niri ez zait  
ezer tokatuko.

Igogailua apurtua  
lehenengo pisuan  
eskaileratik igo  
betiko moduan.

Atea itxita da  
leihotik begira  
eta poltsoa doa  
leihotik behera.

Behera berriz ere  
poltsa hori hartzera  
zuzendaria duela  
esan dit portera.

Jon Irañeta

[Aurkibidea](#)

### ***Bazkaria***

Bazkaltzera joan nintzen  
Oskiarengana  
mahai gainean banuen  
nahi ez nuen jana.

Entsalada lehenengo  
arraina badute!  
postrerako ondoren  
hiru aguakate.

Joan naiz etxera gaizki  
ohera joan nahirik  
gaur oso-osoa gaizki  
pasatu baitut nik.

Zopa beroa janda  
etxean naiz ohean  
ohean goxo-goxo  
lo gelditu nahian.

Uxue Etxeberria

[Aurkibidea](#)

### *Suerte txarra*

Gaur entrenamenduan  
buruz jo dit langa  
ta benetan kolpea  
izugarria izan da.

Azken minutuetan  
partidara joan naiz  
baina harmailetan gelditu  
oso lasai egon naiz.

Penaltia egin dugu  
azken minutuan  
Sagrado Korazonek  
bota du orduan.

Lehenengo langan jo  
gero zutoinean  
atezainari jo ta  
barrura azkenean.

Julen Iriarte

[Aurkibidea](#)

### *Suerte txarra*

Ohetik erori naiz  
goizean lurrera  
ta nire anaia  
bota da gainera.

Gero nire arreba  
bota da gainera  
ta gero biok kendu  
ta segi aurrera.

Gero ikusi dugu  
zuloa lurrean  
hortik aurrera beti  
erori beharrean.

Iosu Erbiti

[Aurkibidea](#)

***Zorte txarrekoa zara. Gaur ere...***

Goizean erori naiz  
eskaileran bera  
eta mina egin dut  
handia gainera.

Gosaria erori  
eta dena zikin  
ezingo dut atera  
arropa horrekin.

Motxila prestatzen  
liburuak sartu  
bizkarrean jarri ta  
motxila apurtu.

Eta geroxeago  
taxia alde egin  
zer esan behar dut nik  
zorte txar honekin.

Geaxi Ezagirre

[Aurkibidea](#)

***Zorte txarrekoa zara. Gaur ere...***

Leihoa ireki dut  
ta txori bat hila  
gosaltzeko erori  
zait esne botila.

Jantzi berria busti  
ta zikindu ere bai  
jantzia aldatu beharra  
hau komeria ai!

Neka-neka eginda  
sartu naiz ohera  
eta erori egin naiz  
literatik behera.

Gau osoa pasa dut  
lorik egin barik  
larunbata iritsi  
ta gozatu dut nik.

Ines Huarte

[Aurkibidea](#)

### *Suerte txarra*

Atzo joan nintzen ospitalera  
eta mina asko egin zidaten  
eta kendu zidaten eskaiola  
eta gero jolasten erori nintzen.

Eta gero medikura joan nintzen  
12 puntu jarri zidaten  
jolastu gabe egon nintzen  
eta puntuak min asko egin zidaten.

Eta gero nire arreba erori  
eta nire arreba  
hanka hautsi  
eta egun guztia negarrez.

Eta gero nire  
aita teilatutik erori  
eta anbulantzia  
deitu eta ospitalera joan.

Eneko [Aurkibidea](#)

### *Suerte txarra*

Baserrian nengoen  
daukat lan galanta  
etorri da txerria  
eta egin dit kaka.

Gero zezena zegoen  
ta begiratu dit  
begirada txarrekin  
adarra sartu dit.

Ospitalean nengoen  
gaizki egon eta  
egun bat pasatu dut  
pixka bat dardarka.

Hurrengo egunean  
ni nengoen hilik  
denok egongo triste  
zezena izan ezik.

Josu Z. [Aurkibidea](#)

### ***Zorte txarra***

Gaur ospatuko nuen  
pozik nire eguna  
ta gonbidatu nituen  
jende ezaguna.

Etzait inor etorri  
nire egunera  
eta aurpegian  
badago tristura.

Txirrina jo dute ta  
kaixo postaria!  
ta orduan hartu dut  
sorpresa handia.

Ez da postaria ez  
lagunak bait dira  
oso ondo pasa dut  
jira eta bira.

Marta Fernandez Beraza

[Aurkibidea](#)

### ***Suerte txarrekoa zara. Gaur ere...***

Goizean esnatuta  
pijama soinean  
sukaldera joan eta  
esnea hartzean.

Prakara erorita  
hori da komeri  
ta nire etxeko-lana  
txakuran gosari.

Komikia erosteko  
badut euro mila  
galdu bai dut kartera  
hori kaka pila!

Etxera iritsita  
pijama jantzia  
ohetikan lurrera  
belarri hautsia.

Alain Urrutia

[Aurkibidea](#)

*Azterketa egiten ari zara eta irakasleak kopiazen harrapatu zaitu*

Joan naiz institutura  
daukat azterketa  
ez daukat ideiarik  
kasuen la puñeta!

Ondoan dago Ane  
jakintzaz beteta  
begiratu egin diot  
larri nago eta.

Gaur daukat azterketa  
egin dut kopiatu  
azkenean irakasleak  
in nau harrapatu.

Etxera etorri naiz  
amak kastigatu  
eta afaldu gabe  
gelara bueltatu.

Maialen Galartza

[Aurkibidea](#)

*Klasekoak baserri bateko bizimodua zein den jakitera joan zarete. Zer ikusi duzue?*

Klasetik atera ta  
baserri batia  
abiatu gara gu,  
hau da hau tokia?

Baserrian usaia  
animaliak bota  
han mila animali  
hau da hau azoka.

Han dena zikina do  
ze nazka ai ene!  
leku zahar hau ez da  
zuretako Ane!

Ez naiz imaginatzen  
hango babarrunak  
nik ez nuke nahi pasa  
hemen nire egunak.

Ane Razkin

[Aurkibidea](#)

### *Azterketa kopiatzen harrapatu*

Eskolan azterketan  
egin dut kopiatu  
eta irakaslea  
egin harrapatu.

Korrikan hasi eta  
azterketa hartu  
nire amari deitu  
ta hor itxaron dut.

Irakasleak hartu  
eta ni zigortu  
bost aste nago hemen  
egin naiz nazkatu.

Ama etorri hona  
hori salbamena  
etxera eraman ta  
zaplatako bana.

Xabier Larunbe Galartza

[Aurkibidea](#)

### *Suerte txarrekoa zara. Gaur ere...*

Ohetik jaiki eta  
kojina lurrean  
kolpe galanta hartu dut  
nire muturrean.

Eskaileretan behera  
zapatila atera  
ni hankaz gora noa  
orduan lurrera.

Gosaldu eta gero  
eskolara noa  
liburuak lurrera  
joan zait gogoa.

Maisua erori da  
nire hankan jota  
irakasleak niri  
kriston bronka bota.

Nerea Berastegi

[Aurkibidea](#)

***Zure lagun baten etxera joan zara bazkaltzera. Gustatzen ez zaizun horixe jarri dute mahai gainean.***

Lagun batek esan dit  
etorri etxera.  
Nik baietz esan diot  
korrikan joan gara.

Mahaian eseri gara  
eta pizza atera  
niri ez zait gustatzen  
posible ote da?

Beraiek jan eta gero  
sagar tarta eman.  
Ai, hau ez zait gustatzen!  
ez dut ezertxo jan.

Etxera ailegatuta  
bokata bat egin.  
Ez naiz inoiz joango  
nire lagunarekin.

Maialen Unanua

[Aurkibidea](#)

***Zure lagun baten etxera joan zara bazkaltzera. Gustatzen ez zaizun horixe jarri dute mahai gainean.***

Gaur bazkaltzera joan naiz  
lagunen etxera  
pentsamenduarekin  
gustura jatera.

Jateko ata dute  
purea kolpean  
ez dut protestatuko  
ta sartu kazuelan.

Beste gelara joan naiz  
deskuido batean  
hango jakiak hartu  
ditut kolpean.

Purea botako dut  
izkina batean  
etxean jango ditut  
kroketak plateran.

Gaizka Ocaña

[Aurkibidea](#)

Nombre de archivo: A maila-parte-hartzaileak eta lanak  
Directorio: C:\Alfredo\Euskara taldeko kontuak\Bertsolaritzarekin  
lotutakoak\Joxe Iriarte Bertso paper lehiaketa\2008ko bertso paper  
lehiaketa\web orrirako prestatuta  
Plantilla: C:\Documents and Settings\Administrador\Datos de  
programa\Microsoft\Plantillas\Normal.dot  
Título: A maila  
Asunto:  
Autor: Compaq  
Palabras clave:  
Comentarios:  
Fecha de creación: 19/05/2008 18:38:00  
Cambio número: 167  
Guardado el: 30/05/2008 21:33:00  
Guardado por: Compaq  
Tiempo de edición: 156 minutos  
Impreso el: 30/05/2008 21:34:00  
Última impresión completa  
Número de páginas: 65  
Número de palabras: 8.465 (aprox.)  
Número de caracteres: 48.508 (aprox.)